

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazioak bezeroak hartzen ditu bere gain, sortuko dugun proiektuaren bezeroak zein eta nolakoak diren azaltzen duen atala. Gurea, “**Merkatu-nitxoa**” izango dela aurreikusten dugu, bezero oso zehatzak eta beraien nahietara lana egin beharko dugunak

Gure xede-bezeroa, kirolariak eta enpresariak izango dira; kirolariak etxean eduki dezake makina eta enpresari batek aldiz bere negozioarako eros ditzake makinak. Enpresariak askoz ere garrantzitsuagoak izango dira, beraien negozioan geure makinak ezarri nahi badituzte, kantitatea garrantzitsua izango da kalitatearekin batera, ondorioz bezero zailak izango dira eta atentzioa jarri beharrekoak. Kirolarietan aldiz, hainbat multzo egon daitezke. Kirol aerobikoa egin nahi dutenak eta pisua altxatuz kirola egin nahi dutenak.

Horri erreparatuz gero aurreikusten dugu, gehienak gazteak izango direla, euren etxeetan sartuko den makinaria bat edukiko dutenak eta kirola egiteaz gainera energia sortuko dutenak.